



## Maiatzaren 26ko hauteskundeen emaitza

Pasa den udal hauteskundeetan, erroldak zituen 1.839 boto-emailetik, EH Bilduk 882 bozka jaso zituen. Hala ere, boto zuri asko izan ziren (235) eta baita hutsak ere (147). Hauteskunde horietako zenbakiekin indar abertzaleak bigarren emaitzarik hoberena lortu du. 2011. urtean 841 boto eskuratu zituen eta 942 2015.enean, Unai Lako zerrendaburu zela. Heldu diren lau urteetan, Ángel Martín Unzué bakarrik gobernatuko du 11 zinegotzigoekin.

EH Bildu, gainera, Nafarroako zein Europako parlamentuetarako bozka gehien eskuratu zituen alderdia

## “Irati” txanpona sortu da

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomuniateak duela gutxi aurkeztu zuen “Irati” tokiko txanpoi soziala, entitateak mankomunatuta dituen herrietako ostalaritza zerbitzukoekin eta merkatariekin. Iniziatiba honek plastikoen (ontziak ez) birziklatzea saritu nahi du, jendea ingurunea zaintzearen alde eta ekonomia biribileria ailegatzeko herriko merkataritza bultzatzeaz gain.

Proiektu hau aitzindaria da Nafarroan eta Estatuan. Haren aurkezpen ekitaldian Mabel Cañada Irati RSU Mankomunitatearen presidentek parte hartu zuen, Xabier Lasa Toki Administrazioako zuzendari orokorra-ekin eta Iñaki Urrizalki Nafarroako Hondarren Partzuegoko zuzendariarekin batera. Bertan elkartu ziren udal eta Cederna Garalurreko ordezkari, merkataria, ostalari eta herritar asko.

Oso erraza da txanponaren funtzionamendua. Plastikoa, edukiontzi berdera eramaten diren ontziak izan

izan zen. Bigarrenaren kasuan, ERC eta BNG-rekin batera aurkeztu zen Orain errepublikak izenpean, eta 487 bozka izan zituen. Egindako hiru deialdian boto kopuru gehien jaso zituen alderdia izan zen.

### NAFARROAKO PARLEMENTURAKO EMAITZAK:

	Botoak	%
EH Bildu	486	38,27
NA+	278	21,89
Geroa Bai	263	20,71
PSN-PSOE	132	10,39
Podemos	61	4,8
I-E	17	1,34

ezik, garbi eta ongi berezita, herri bakoitzean Gune Garbiko furgonetara kokatzen den lekura eramaten datza. Agoitzen, esaterako, ostegunetan eraman daiteke, 11:00-13:00, azoka egiten den plazan egoten den furgonetara. Han, eramandakoa pisatu eta plastikoa 2 kiloko «Irati» bat emanen da.

Lortutako «Irati» txanponak Agoitzen eta eskualdean erabili ahalko dira kanpainara atxikitako komertzio eta establezimenduetan. Leku horietako sarreretan “Sí, Irati, Bai” kartela egonen da ikusgai, txanponak dituzten bezeroak bereiz ditzaten. Bezeroak nahi duen produktua erosteko aski «Irati» ez badu, euroekin ordain dezake gainerakoa.

Ekimenarekin herritarrak, tokiko komertzioak eta ingurunea gertatuko dira irabazle. Izan ere, «Irati» txanpon sozial alternatibo bat baino askoz gehiago da, denen artean aurrera eraman behar den proiektua, alegia.



## Osasun etxea zabaldu eta eraberrituko da

Osasunbideak Agoizko osasun etxea zabaldu eta haren barnealdeko zenbait leku eraberritzeko obrak esleitzeko lizitazio prozesua abiatu du.

rako areto berria, dagokien itxaron gelez gain. Apartamentu bat egiteko lekua gordeko da, gainera, gaueko guardiak egiten dituzten osasun langileentzat.

Obren lizitazioko aurrekontua 575.000 eurokoa da, eta heldu den uztailean hastea aurrikusita dago. Lanak exekutatzeko, berriz, 10 hilabeteko epea dago.

Eraikin berriak planta bakarra izanen du, eta 700 m<sup>2</sup> duen lurzatian eginen da. Osasun Etxeari lotuta egonen da, galeria baten bidez.

Osasun etxea zabaltzeko, atxikitako eraikin berri bat altxatuko da, bertan pediatria bi kontsultategi egokituko dira eta larrialdieta-

Proiektuak ere osasun etxeak gaur egun dituen dependentzietako gela batzuen eraldatzea ekarriko du, honako hauek, hain zuzen ere:

balio anitzeko aretoa, larrialdietako kontsultategia, komunak, biltegia eta bulegoa. Eraikinaren barnealdeko aretoen banaketa guztiz eraldatuko da.

Agoizko oinarrizko eskualdeari 3.854 osasun txartel egokituta. Horietako 3.201 pertsona helduek dira eta gainerako 653 pediatria zerbitzua jasotzen dituzten haurrenak.

Osasun Etxean, goizeko ordutegiarekin honako profesional hauek aritzen dira: hiru familia mediku, eta beste hainbeste familia eta komunitate erizain, pediatria bat eta erizaina, eta gizarte langile bat. Gauetan eta asteburuetako arreta emateko, berriz, hiru mediku eta hiru erizain aritzen dira.

Goizeko ordutegiarekin zerbitzua ematen da, osasun etxean izan ez ezik, Urrotz eta Orotz-Beteluko kontsultategietan. Honako hauek dira Agoizko oinarrizko eskualdea osatzen duten gainerako udalerriak: Artzibar, Longida, Itzagaondoa eta Untzitibar.



## Eloko Teileria, memoria historikoko lekua modura inskribatu da

Nafarroako Gobernuak behin behinekoz inskribatu ditu Nafarroako Memoria Historikoko zazpi leku berri. Horien artean dago Eloko Teileria, non 11 agoiztar fusilatu baitzituzten. Gainera, honako memoria gune hauek ere inskribatu dira: Kadreitako Valcalderako Hobia, Berako Argaitzeko Harrobia, GR-225 Ibilbide Luzea, Iberoko Hiru Gurutzeen Gaineko Hobia, Etxauriko Memoria Parkea, Germán Rodríguez Sáizen oroienezko hilarria eta "Gogoa" eskultura.

Urrats berri horrekin Nafarroako Gobernuak berretsita nahi du memoriarekin duen konpromisoa. Izan ere, memoria ezinbesteko tresna da, ikuspegi kritiko batetik atzera begiratzen duen eta biktimak errepartzearen alde jarduten duen gizarte zuzenagoa eta

demokratikoagoa eraikitzeko. Izu-leku horiek seinalatzatuta eta ezagutzera emanda, belaunaldi berrien artean bereziki, oroimena, bakea eta bizikidetzaren transmititzeko gune bilaka daitezke.

Gogorarazi nahi dugu pasa den apirilaren 26an Nafarroako Gobernuak onetsi zituela Nafarroako lehenengo sei Memoria Historikoko Lekuak, toki horiek babestu, kontserbatu eta ezagutzera emateko. Honako hauek dira Nafarroako Memoria Historikoaren Erroldan sartutako berriak: Sartagudako Memoria Parkea, Otsoportilloko leizea, Olabeko Hobia, Igari eta Bidankoze arteko errepidean dagoen Memoriala, Erreniegako hobien memoriala eta errepresioa jasan zuen Azkoiengo emakumea gogoratzeko eskultura.

## Aitortza ekitaldia, Agoizko kultur taldeei

Pasa diren sanisidrotan Agoizko Udalak aitortza ekitaldi bat presatu zuen Agoizko taldeentzat. José Amichis plazan antolatu zen eta hunkigarria gertatu zitzairen bertan elkartutako publiko ugariari.

Idoia Zabazak euskaraz idatzitako hitz batzuen bidez gainbegiratu bat eman zion Agoizko kultur egutegiari, Aritz Ugaldek pianoa

jotzen zuen bitartean. Patxi Huartek eta Josunek Etxartek ziren eginiko eskulturarekin eta horman margotutako muralarekin apaindu zituzten kultur etxeko bi txoko, herriari bizia ematen dieten herrikoiei esker ona adierazteko. Kultur kolektibo guztietako zenbait kidek zuhaitza eraiki zuten, bakoitzak adar bat jarriz alde aurretik belardian ezarritako zuhaitzaren enborrari.

"Agoizkoak, zorionekoak gara kolektibo hauek guztiak ditugulako" esan zuen Carlos Villanueva 'Txako' kultura zinegotziak, lehengo taldeak gogoratzen zituen eta berriei ongi etorria ematen zien bitartean. "Ez dadila inoiz hau gelditu!" hitzak esanda, bukaera eman zion hiriko kultura aberastasuna eman dioten berrogeitik gorako kultur taldeei eskainitako ekitaldiari.



## Narrazio Laburren XIII. Lehiaketako sarien banaketa ekitaldia

Beste urte batez ospatu zen, hamahirugarren edizioa izan zen hain zuzen ere, leporaino betetako Kultur Etxeko entzutegian, Agoitz Hiria Narrazio Laburren Lehiaketako sariak banatzeko ekitaldia.

Pantxika Lamur (Ainhua Juárez) izan zen, berriro ere, protokolo maisua, eta banan bana deitu ziren kategoria bakoitzeko sarien jasotzaileei. Ekitaldia, beti bezala, umorez eta trebeziaz gidatu zuen. Epaimahaiko eta udal kideek lagundu zioten banaketan, izan ere, horiek eskura eman zieten irabazleei zegokien saria eta diploma.

Ekitaldia aprobetxatu zen saritutako ipuin guztiak jasotzen dituen liburuxka aurkezteko. Zorionak irabazle guztiei eta, baita, XIII. Lehiaketa honetan parte hartu duten guztiei.



## San Romanerako erromeria, historia eta tradizioa

Maiatzeko lehen igandean San Romaneko erromeria antolatu zen Agoitzen. Dantzari taldeko zenbait kideek, txistulari taldekideek jarritako notak lagun, agaramontar eta beaumontarren arteko guda

irudikatu zuten. Ezaguna den moduan, 1479.eko irailean, bi alde horien arteko bake ituna sinatu zen bertan, Magdalena erregeordea lekuko.



Ehun bat lagun hurbildu ziren ermitaraino. Goiza atsegina zenez, gustura egin zuten Agoitzetik ermitara arteko ibilaldia. Erromeria ailegatu zenean meza ospatu zen, eta bertan Bilaketa gitarra taldeak jo zuen. Jardunaldia bukatzeko, bakearen ituna gogoratzen zuen Pello Guerrak idatzitako testu bat irakurri zen. Agoizko Udalak hamaiketako eskaini ziren leku historiko garrantzitsura hurbildutakoei.

Bidenabar, eskerrak eman nahi dizkiogu Luis Prietori, otapur goxoak egiteagatik, eta udal langileei, jai egunean lan egiteagatik.

## Sanisidroak, alai igaro ziren

Berriz ere, Agoitzek handikiro ospatu zituen festa txikiak. Sanisidroak egun bereziak izan dira beti urteko egutegian. Eta aurtengoan, giro bikaina eta parte hartze handia izan dira bost egunetan zehar antolatu diren ekitaldien ezaugarriak. Ostiraleko, hilak 10, arratsaldean hasi zen programazioarekin: Udal Pilota Eskolako lehiaketako finala jokatu zen. Aurten, nobedade gisa, San Migel ikastetxeko flauta ikasleek kontzertu bat eman zuten Kultur Etxean.

Larunbatean zehar aktibitate ugari izan ziren: kalejira, musika esko-

lako fanfarrearekin; herriko eta inguruko artisauen azokaren 7. edizioa (21 postu jarri ziren), Kultur Etxeko plazan antolatu zuen Sareanek, kultur taldeei eskainitako omenaldi ekitaldia bertan ospatuko zela eta; herri bazkaria, Angiluerrekak antolatutakoa; eta gauean, dantzaldia Oharkaberekin, txupito erronda eta DJ-ak.

Urtero data horietan izaten den moduan, Pirritx, Porrotx eta Mari-motots ailegatu ziren gure herrira. Aurtengoan, «Musua» ikuskizuna eskaini zuten. Haur eta heldu andan lekora bete zuen pilotale-

kua, eta ikuskizun dibertigarriak guztien barrea eragin zuen.

San Isidro egunaren bezperan, San Migel abesbatzako garai guztietako ahotsak elkartu ziren elizan ohiko Salbea kantatzera. Ondoren, ohi bezala, sua piztu zen Merkatuko Plazan, nahi zuen orok salto egin zezan.

Maiatzaren 15eko goiza diana, prozesio, meza eta erraldoien txanda izan zen. Arratsaldean, berriz, txokolatearen ondoren, dantzariak eta gaitariak norgehiagoka aritu ziren, Artajonako jotaren erritmora.



## Udal Musika Eskolako jarduerak

Udal Musika Eskolak zenbait ekitaldi eskaini ditu azken hilabeteetan zehar. Kultur Etxeko entzutegian Ikastetxe Pubikoko txikitxoenei zuzendutako kontzertu didaktiko bat eman zen. Saioa oso dibertigarria eta erakargarria da, eta harekin musikarako zaletasuna piztu nahi zaie, izan ere, badute bertan geroan jo ahal dituzten instrumentuak ezagutzeko aukera.

Sanisidrotan zehar, larunbateko



goizean hain zuzen ere, Musika Eskolako fanfarreak melodia ederak eskaini zituen herriko kaleetan zehar.

Txistu gelako ikasleek, berriz, eta azken urteetan egiten ohi duten moduan, kontzertu zoragarria eskaini zuten Kultur Etxean Carlos Peñaranda irakaslearen zuzendaritzapean. Eszenatokiaren gainean, haiekin batera, Uharteko eskolako ikasleak aritu ziren.



Ondorengo beste egun batean, bi eskoletako ikasleek kontzertu bera eskaini zen Uhartean.

Horretaz gain, Musika Eskolako ikasleek Musikal bat egingo al dugu? ikasgaiko ikasturtea ixteko musikala taularatu zuen. Urtetik urtera ikasgaia arrakastatsua gertatzen ari da. Aurten «School of Rock» izan zen eskainitako obra.



## Kultur Balantzea

Sanisidroetako jai programazioaz gain, herriko kultur aktibitateak dinamika bizia izan zuen maiatza osoan zehar.

Mariano Garcia Musika Bandak bi kontzertu antolatu zituen bere 20. urteurrena ospatzeko, eta bertan herriko kultur talde guztiek parte hartu zuten. Urtean zehar herrian antolatzen diren ekitaldi nabarmenetako soinu ezagunenetan zeharreko ibilbidea egin zuen.

Iruñeko Ahots Baxuen Abesbatza Agoitzera etorri zen San Migel abesbatzaren 75. urteurrena zela eta, eta kontzertua eman zuen San Migel elizan.

Kultur Etxean, bi erakusketa antolatu ziren. San Migel LH eta DBH ikastetxeko ikasleek egindako lanak ikusgai egon ziren «Artista Txikiak» izenpean. Bilaketak, bestalde, Francisco Yndurainen heriotzaren 75. urteurrenaren kariatara, hitzaldi bat antolatu zuen, «Mai-

suen Maisu» erakusketaz gain.

Dantzak ere lekua izan zuen hileko egutegian. Dánzalo dantza eskolako ikuskizuna antolatu zuen, eta bertan ballet klasikoko eta musikaletako koreografia aukeraketa bat eskaini zuen.

Raúl de la Fuente zine zuzendari nafarrak topaketa bat egin zuen «Un día más con vida» filma sarituaren proiektzioa ikustera hurbildu zen publikoarekin.



## Udalbatza Txikiaren bilkura egin da

Aurreko urteetan egindakoren moduan, udal korporazio txikiaren zeregina jai ekitaldietan parte hartzeaz gainekoa izan da. Aurreko Eguberrietan ongi etorria eman zieten Olentzero eta Errege Magoei; eta maiatzaren bukaeran osoko bilkura ospatu zuten, zeinetan, karguak hartzeaz gain, zenbait eskakizun egin eta herriaren alde lan egiteko konpromiso hartu zuten.

Eskatutakoaren artean nabarmentzekoa da txakurren gorotzak jasotzeko paperontzi gehiagoren beharra, saskibaloi talde mistoa osatzea eskatu zuten ere, tirolinadun parke bat, kirol gunean jolasteko gune gehiago egokitzea, koloretako paperontziak jartzea (horiak batez ere), estalpeak egokitzea, gazte-diskoaren ordutegia zabaltzea, jaietan haurrentzako aktibitate gehiago antolatzea...

Eta konpromisoen zerrendan, besteak beste, honako hauek: garbitzeko auzolanak egitea, zibismoa sustatzeko kanpainak egitea, hiriko eta eskolako altzariteria zaintzea, igerilekuen arauak errespetatzea, bizilagunekiko errespetua gordetzea...

## Elaide web-orri berria heldu da

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek, Agoizko udalarena ere, elkarlanean sortu dute elaide.euswebgunea, euskaraz ikasten ari direnei laguntza eta baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Euskara ikasleentzako txokoa da Elaide. Euskarara hurbildu nahi dutenendako, ikasketaprozesuan

aurrera egin nahi badute, euskaraz egiteko aukerak eta baliabideak bilatzen dituzten horiendako toki ezin hobea da.

Bertara sartzen denak honako hau aurkituko du: informazio eguneratua eta interesekoa, euskarazko aktibitateen agenda, bi asteroko buletina, euskara ikasteko dirulaguntzei buruzko informazioa,

euskara ikasi eta praktikatzeko baliabideak, hainbat webgune eta proiektuetara estekak (euskaltegiak, mintzapraktika, Euskaraldia, tokiko hedabideak, etab.).



## Euskaraldia baloratzeko bilera

Pasa den maiatzaren 21ean, Topaguneak, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean burututako Euskaraldia izeneko egitasmoaren bultzatzaileak, ekimena baloratzeko bilkura egin zuen. Hartara deituta zeuden Pirinioetako eremu honetan sortutako eragile taldeei, eta leku hauetako ordezkariak elkartu ziren: Aezkoa, Agoitz, Eroibar, Lizoainibar eta Urrotz.

Bilkuran azpimarra jarri zitzaion ekimenaren izaera berritzaileari. Modu berean, oso ongi baloratu zen Euskaraldiak izan zuen partaidetza, ez bakarrik maila orokorrean, baizik eta eskualde honetan lortu zuena



Hurrengo abuztuko jaietan protagonismoa izanen dute "Hurren Egunean" (txupinazoa, lore eskaintza, apar festa), hala nola «Adinekoen Egunean», zahar egoitzara bisitan joanen baitira eta Gaixoa Ni ekitaldian egonen direlako.

Hauek osatzen dute Udalbatza Txikia: *Alkatea*: Elena Vicente Martínez. *Zinegotziak*: Claudia Aldave Martínez, Argiñe Babiano Arroyo, Markel Barrio Escudero, Arkaitz Cortez Huarte, Eder Goldaracena Eslava, Saioa Meleiro Herrera, Aroa Moreno Iturralde, Leire Ripodas Egea, Mateo Ruiz Baleani, Laila Sigame. *Ordezkoak*: Leo Bodini Iturri, Iker Itoiz Ripodas, Roberta Mihai.